

# HBk sei puntuko proposamena egin dio EAri Muruari botoa emateko

Leitzarango autobideko gipuzkoar zatiko lanak gelditu araztea da lehen eskakizuna

**G**ipuzkoako diputatu nagusiaren aukeraketaren aurrean, Herri Batasunak sei puntutako proposamena egin dio Eusko Alkartasunari. Autobideko gipuzkoar zatiko lanak gelditu araztea lehen puntua duen proposamena onartuz gero, HBk bere hautagaia erretiratu, eta Imanol Muruari emango liokete botoa.

PELLO URZELAI / DONOSTIA

Herri Batasunak Eusko Alkartasunari egin dion oinarriko proposamenean, «inplikaturiko agente sozial, ekonomiko, instituzional eta politiko ezberdinen adostasunarekin, eta Leitzaeran hondatu gabe, traizaera berria taitzeko akordioa hartzen ez den bitartean, Gipuzkoako zatian Autobideko lanak gelditu araztea» da lehenbiziko puntua. Honekin batera,

Astigarraga, Lezo, Hernani, Anoeta, Ibarra eta Ataunen «herriaren borondatea ahalik eta lasterren errespetatzeko konpromezua hartzea», gizarte mugimenduekiko «errepuzko jokabidea eta elkarriketa garantizatzea», euskararen «konplexurik gabeko defentsa instituzionala», udal autonomia «eraginkor eta benetazkoa defentsatzea» eta «gestioaren gardentasuna» eskatu dio HBk EAri akordioa gauzatzeko.

Proposamen hau HBko Mahai Nazionalak zehaztu zuen ostegun arratsaldeko bileran eta Gipuzkoako herrialdeko asanbladak aztertu eta onetsi egin zuen. Proposamena EAko exekutibari bidali zaito eta alderdi honetako Junta Lokalei hel araziko zaie. Rufi Etxeberriaren ustez, «akordioa posiblea da», maiatzaren 26ren geroztik «bi alderdietako kideen arteko harremanak indarberritu» bait dira, eta EAko baseetatik «proposameneko planteamenduekin sintonizaten duen hurbiltze politika»



HBko kideek eman zuten atzo proposamenaren berri.

C. VILLAGRAN

eman bait da. Akordioa aurrera ateraz gero, HBk ez luke parte hartuko Diputazioaren gobernuan, Jose Luis Elkorok adierazi duenez, «ezta eskaintzarik izango balitz ere». Kasu horretan, «EAK osatuko beharko lu-

ke gobernua», esan zuen Elkorok. HBren apoiorekin, EAK 24 boto izango litzuke, EAJ eta PSOEek dituzten 21 botoen ondoan. Gipuzkoako Batzar Nagusietan EEK 4 ditu eta PPK 2.

## EARI egindako proposamena

A. Inplikaturiko agente sozial, ekonomiko, instituzional eta politiko ezberdinen adostasunarekin, eta Leitzaeran hondatu gabe, traizaera berria taitzeko akordioa hartzen ez den bitartean, Gipuzkoako zatian **Autobideko lanak geldiaraztea**.

B.- HBri alkatetza era antidemokratikoan lapurtu zaien udaletan, hots, **Astigarraga, Lezo, Hernani, Anoeta, Ibarra eta Ataunen**, herri borondatea ahalik eta lasterren errespetatzeko konpromezua hartzea EAren aldetik.

D.- Batzar Nagusi eta Foru Diputazioetik errespetuzko jokabidea eta **elkarrizketa garantizatzea gizarte mugimenduekiko**. Ildo beretik, jarrera instituzionalak aldaketa sakona erakutsi beharko du agente sozialekiko eta beren erreibindikazioen aurrean, itxikeria eta inposaketa politika bertan behera utziz.

E.- **Euskararen konplexurik gabeko defentsa** instituzionala foru eskumeneko eremu guztietan, Estatuako Gobernu eta Instituzioen politikatik etorritako erasoaren aurrean, hala nola PSOE-EAJ hitzarmena nagusitu den erakunde autonomiko, foral eta lolaken utzikeria eta zarkeriaren aurrean.

F.- Udal Autonomia eraginkorra, benetazko defentsa instituzionala eta **berdintasuneko tratua udal guztiei**, alkatetzen kolore politikoaren arabera mesedekeriari gabe.

G.- **Gestioaren gardentasun osoa**, konfidantzazko postuen izendapenari, ez ohizko zerbitzuen kontratazioari, foru kompetentzien gestiorako instituzio pribatu edo mistoen promozioari dagokionean eta, oro har, Foru Instituzioaren menpe dauden gai guztietan.

## Larrinaga: «Gobernua bermatzeko asmoz eskaini du Madrilek pakto autonomikoa»

FELIX IRIARTE / GASTEIZ


PSOEK Juan Manuel Egiagarai ministroaren bidez eskaini berri duen pakto autonomikoa PSOEn egoeraren ondorioa dela uste du Jon Larrinaga EEko idazkari nagusiak, eta ez ordea, sozialisten «sentsibilitate» autonomikoari. «PSOEK Madrilen gobernatzeko akordioak egin beharko ditu CiU eta EAJrekin seguruena, eta ohartu dira horrek kostu politiko bat duela» esan zion atzo Larrinagak EGUNKARIARI.

Egiagaraik proposatzen duen paktoak beste autonomiztatzen duen errespetuak zehaztea eskatzen du, eta honek ere badu bere zergatia Larrinagarentzat. «Ezin da akordio orokorra egin 143 artikuloen bidez autonomia lortu zuten kontutan hartu gabe, baina gakoak EAEn eta Katalunian dago». PSOEek bere interesen arabera egiten duela politika uste du. Pakto autonomikoa «beharrezkoa»

da Larrinagarentzat, eta estatuaren egitura «federalizatzea» proposatzen du. «Senatuaren zeregina aldatu egin behar da, are gehiago EEn sartuz gero, lurralde autonomoek legegintzan erabakiak hartzeko plataforma behar beharrezkoa zaigulako» adierazi zuen Larrinagak.

**LIDERGOA JAURLARITZAREN ESKU**

Jaurilaritzako hiru alderdien artean jarrera amankomuna bilatzea proposatu zuen Hirigintza eta Etxebizitzako sailburuak, paktuaren lidergoak gobernuko hiru kideen esku egon behar dela esan eta gero. «Gobernuak lideratu beharko luke prozesua beste alderdien adostasunarekin batera, egun batean denok ados egon ginelako Gernikako estatutua defendatzerakoan». Ildo beretik, hirukoitzak Gasteizko Legebiltzarrean inizatiba bat aurkeztu behar lukeela adierazi zuen, eta estatuaren eraikuntzan kon-



Jon Larrinaga.

prometitu. «Azkenean estatua modu batekoa nahi badugu -adierazi zuen Larrinagak- egituraketan parte hartzen dugun neurrian moldatuko du, jarrera positiboa azalduz».

## EAJ eta PSE-PSOEri egoera desblokeatzera deitu die Cuerdak

GASTEIZ

Jose Angel Cuerda Gasteizko alkateak EAJ eta PSE-PSOEko exekutibei deialdia egin zien atzo, egoera «desblokeatzeko» akordioa lortze aldera Gasteizko Udala gobernatzeko. Behinbetirako akordioa datorren astean sina daitekeela esan zuen Gasteizko alkateak, egun dauden arazoak -lau edo bost bere esanetan garrantzirik gabekoak bait dira bere ustez. Ezadostasunak udaleko gestioan daudela adierazi zuen Cuerda alkateak, eta oraindik konponketak itxaron egin beharko duela baieztatu zuen, «gutxienez Fernando Buesa itzuli arte». Buesa, PSE-PSOEko Arabako idazkari nagusia Noruegan dago pasa den asteartez geroztik, eta bere presentzia beharrezkoa da akordioa sinatzeko. Cuerdak, bere aldetik, bere alderdiak erabakitzen duena beteko duela ziurtatu zuen, eta berak bezala EAJko zinegotziek ere, «disziplinatuak» direlako.

Negoiazioak burutzeko, bera ez dela oztopoa esan zuen, eta gainera PSE-PSOE jeltzaleek aurkeztutako programaren «gehiena» onartzen ari dela ziurtatu zuen.

## Ttipi-Ttaparen amaitzeaz bat manifestazioa gaur Bilbon

BILBO

«Giza eskubideen alde presoak Euskadira» lema eramango duen manifestazioarekin, gaur amaituko da Bilbon Ttipi-Ttaparen bigarren edizioa. Hamar egunetan Euskal Herria zeharkatu duen amnistiaren aldeko ibilaldia goizean iritsiko da Bizkaiko hiriburura. Bertako kaleetan ibili ondoren, herri bazkaria egin eta arratsaldeko bost et'erdietan hasiko da manifestazioa. Sagrado Corazon plazatik abiatuko da.

Ttipi-Ttaparen antolatzaileek, Ipar eta Hego Euskal Herriko bost organismoak, manifestazioan parte hartzeko deia egin dute, eta baita Herri Batasuna alderdi politikoak ere. Presoen eskubideen aldeko manifestazioa legeztatuta dago.

«Manifestazio hau erreprosioren kontra eta amnistia lor-

tzearen bidean presoak Euskadin elkartzearen aldeko oihu bateratua izango da» zioen atzo Amnistiaren Aldeko Batzordeak manifestaziorako deia egiterakoan.

Ttipi-Ttapa bestalde, goizeko hamar et'erdietan iritsiko da Bilbora. Otxarkoagatik hasi eta gainontzeko auzoak pasa nahi ditu eguerdian Arenalean amaitu aurretik. Santi Brouardi omenaldia egingo diote kontsulta zuen lekuan, eta Errekalden Jose Muguruzari. Ttipi-Ttaparen azken kilometroetan jende ugari batuz joan dela azaldu zuten atzo gestorek: «Joan zen urteko partehartzea gainditu du, eta gaurko manifestazioarekin 200.000 lagun inguruan koka daiteke inizatiba honek bildu duen jendetza». Jende ezagunaren apoioa ere jaso dela azaldu zuten gestorek, Alfonso Sastre, Zumeta, Patxi Bisquert eta Josu Arenaza horien artean.



BILBOKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

ASTEBURUKO IHARDUERAK

Ekainak 29, larunbata  
12.30ean: MUSIKA UDAL BANDAREN  
Kontzertua DEUSTON

Ekainak 30, igandea  
09.30ean goizez: TXISTULARIEN  
UDAL BANDA -LA PEÑAN  
11.00etan -ERREKALDEBERRIN  
12.30ean: MUSIKA UDAL BANDAREN  
Kontzertua Areatzako Kioskoan.

SAILEKO ORDEZKARIA  
KULTURA ETA TURISMOA

